

# EUSKAL KULTURGINTZARI BURUZKO IRAKASPENAK ORAIN ARTE

EUSKALGINTZA: GIZARTE ALDAKETARAKO EUSKAL  
KULTURGILEEK OSATURIKO ESPARRU KOGNITIBOA



# ABIAPUNTU TEORIKOAK

- HIZKUNTZA BATEN HIZTUNEK HIZKUNTZAREKIN DUTEN HARREMANA EZ DA "NATURALA" ETA BEREHALAKOA IZATEN. HIZKUNTZA KOMUNITATE BATEN JOKAMOLDE LINGUISTIKOAK ULERTZEKO **KULTURA ELITEEN BITARTEKARITZA-LANAK** IZANDAKO ERAGINA HARTU BEHAR DA AINTZAT
  - HISTORIAN ZEHAR HIZKUNTZARI BURUZ SORTU DITUZTEN IRUDIKAPENAK
  - CORPUSA ALDATZEKO EGIN DITUZTEN SAIOAK, ETA ABAR
- SAIO HORIEN HELBURUAK: HIZKUNTZAREN ESTATUSA ALDATZEA, HIZTUNEN PRAKTIKAK ALDATZEA, AZKEN FINEAN, **ALDAKETA SOZIALA** BULTZATZEA KULTURGINTZAREN BITARTEZ



# ABIAPUNTU TEORIKOAK

- HIZKUNTZEN ARTEKO UKIPEN EGOERA DAGOENEAN –BERAZ, EZKUTUKO EDO AGERIKO GATAZKA GARATZEN DENEAN-, GATAZKA HORREK ADIERAZPENAK IZATEN DITU MINTZAIRA PRAKTIKEN MAILAN BAITA MAILA SINBOLIKOAN ERE. HARTARA, HIZKUNTZEI BURUZKO ASKOTARIKO DEFINIZIO SOZIALAK LEHIATZEN DIRA LEGITIMAZIO BILA GIZARTEAN. KULTURGILEAK IZATEN DIRA DEFINIZIO HORIEN EGILE PRIBILEGIATUAK, BALIABIDE KULTURALEN JABE DIREN HEINEAN.
- HORIEK HORRELA, EZTABAIDA INTELEKTUALA HIZKUNTZA GATAZKA GEHIENETAN AGERTZEN DA ETA HIZKUNTZA KOMUNITATE GUTXITUEK ESKURA DAUZKATEN TRESNAK ETA BALIABIDE SINBOLIKOAK ERABILTZEN DITUZTE LEHIA HORIETAN EUREN ERRESISTENTZIA KOGNITIBOA ERATZEKO: GARAIAN GARAIKO IDEIA NAGUSIAK, ARRAZOIBIDEAK ETA EZAGUTZA LEGITIMOAK



# ABIAPUNTU TEORIKOAK

-IKUSPEGI HORREN ARABERA, EUSKALGINTZA DEITZEN DUGUN MUGIMENDUA **GUNE KOGNITIBO** GISA ULER DAITEKE. BESTEAK BESTE, KAPITAL SINBOLIKO ETA KULTURAL BATEN METAKETA HISTORIKOAREN EMAITZA DA. BESTELA ESANDA, EUSKAL KULTURGILEEK DENBORAN ZEHAR (BEREZIKI XIX. MENDE AMAIERATIK AURRERA) SORTU ETA GARATUTAKO IDEIA, IRUDIKAPEN ETA EZAGUTZA MULTZOAREN ONDORENA



# ABIAPUNTU TEORIKOAK

- EUSKALGINTZA DENBORAN ZEHAR MUGIMENDU SOZIAL GISA ERATU DEN **HARREMANEZKO ESPARRU BAT** ERE BADA. ZER ESAN NAHI DU HORREK? BADA, HAREN BARNEAN ERA ASKOTAKO **ERAGILEAK ETA INSTITUZIOAK** SORTU ETA GARATU DIRELA, EHUN BATEAN HARIAK BILBATURIK DAUDEN ANTZERA, HARREMANEZ LOTUAK. TARTEAN EUSKAL KULTURGILETZAT HARTZEN DITUGUN ERAGILEAK DAUDE. EUREN ARTEAN ERA GUZTIETAKO HARREMANAK, KOKAPENAK ETA HIERARKIAK ATZEMAN AHAL DIRA
- ERA BEREAN, **ESPARRU KOGNITIBO** MODURA ERE, HIZKUNTZARI ETA GIZARTEARI BURUZKO **ASKOTARIKO DEFINIZIOAK ETA INTERPRETAZIOAK** SORTU DIRA, BATZUK OSAGARRIAK ETA BESTE BATZUK GATAZKATSUAK. DEN-DENEK OSATZEN DUTE EUSKALGINTZA DERITZOGUN UNIBERTSOA



# ABIAPUNTU TEORIKOAK

EUSKALGINTZAREN ESPARRU KOGNITIBO  
HORREN OSAKETAN HIRU UNE HISTORIKO  
NABARMENDUKO GENITUZKE:

- 1) EUSKO PIZKUNDEAREN MUGIMENDUA  
(XIX. MENDEAREN AZKEN HERENEAN  
HASTEN DENA)
- 2) 1960/70EKO KULTURA SUSPERRALDIA
- 3) INSTITUZIONALIZAZIO AUTONOMI-  
KOAREN OSTEKO GARAIA



# EUSKO PIZKUNDEA

- **TRADIZIOAREN ETA MODERNITATEAREN ARTEKO DIKOTOMIA HAUSTEA** IZAN ZEN PIZKUNDEAREN MUGIMENDU ETNOLINGUISTIKOAK IZAN ZUEN DESAFIORIK HANDIENETAKOA
- ALDAKETA POLITIKOEN ETA EKONOMIKOEN GIZARTE TRADIZIONALEAN (ETA, HARTARA, HIZKUNTZA KOMUNITATEAN) SORTUTAKO DISLOKAZIOA EGON ZEN PIZKUNDEAREN JATORRIAN
- GIZARTEA ETA KULTURA ERREFORMATZEKO ASMOEKIN SORTU ZEN. ELITE KULTURALEK ETA POLITIKOEN ERATU ZUTEN EUSKARAREN ETA EUSKAL NORTASUNAREN ALDEKO PIZKUNDE MUGIMENDUA HIZKUNTZA ETA ETNIZITATEA ELKARTUZ



# EUSKO PIZKUNDEA

NOLAKO URRATSAK EGIN ZIREN KULTURA ESPARRUA OSATZEKO?

1) ERA ASKOTAKO **ALDIZKARIAK** SORTU ZIREN (*RIEV, EUSKAL ESNALEA*). ARGITALPEN HORIEK ERABAKIGARRIAK IZAN ZIREN GARAIKO PROTOINTELEKTUALAK HARREMAN BILBEETAN BILTZEKO ETA ESPARRU INTELEKTUALA TRINKOTZEN HASTEKO, BAITA GUNE KOGNITIBO GARRANTZITSUA ERATZEKO ERE.

BESTALDE, EUSKALTALETASUNA HERRITARTZEKO HIZKUNTZAREN ALDEKO **EKINTZA KULTURALAK** ANTOLATU ZIREN (EUSKAL JAIK, LORE JOKOAK)



# EUSKO PIZKUNDEA

- 2) **ERAKUNDE KULTURALAK** SORTU ZIREN (*EUSKO IKASKUNTZA, EUSKALTZAINDIA*), KULTURGILEEK ONGI BAITZEKITEN ESPARRU KULTURALA TAXUTZEKO ETA EGITURATZEKO INSTITUZIOAK SORTU BEHARRA ZEGOELA. EUSKO IKASKUNTZAK, ADIBIDEZ UNIBERTSITATEAREN EGINKIZUNAK BETE DITU LUZAROAN



# EUSKO PIZKUNDEA

3) ARIAN-ARIAN EZAGUTZA BAT SORTU ZEN: HIZKUNTZA ESTANDAR BATERATUAREN PREMIARI BURUZKO LEHEN GOGOETAK ABIATU ZIREN, HIZKUNTZAREN CORPUS- ETA ESTATUS-PLANGINTZAREN GAIK JORRATU ZIREN (URKIJO, ELEIZALDE) ETA EUSKARAREN GAIN ERAGITEN ZUTEN FAKTORE SOZIALEZ HITZ EGIN ZEN LEHENDABIZIKOZ (AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOEN AURREKARIAK: CAMPION, BROUSSAIN)

HITZ BATEAN, GERORA EUSKALGINTZAREN "PROGRAMAN" AGERTU DIREN GAI NAGUSIAK PIZKUNDE MUGIMENDUAREN KULTURGILEEK ETA ERAKUNDEEK FORMULATU ETA PLAZARATURIKOAK DIRA, HEIN HANDI BATEAN. EUSKALGINTZAREN EZAGUTZAZKO LEHEN KAPITAL GARRANTZITSUA EUSKO PIZKUNDETIK AURRETA METATU ZEN



# EUSKO PIZKUNDEA

MUGIMENDUAREN EKARPENA: **HAREN MODERNOTASUNA**

- GARAIKO KULTURGILEEK (EUSKO IKASKUNTZAKOEK, ADIBIDEZ) HIZKUNTZAREN PRAKTIKAK ERREGULATZEKO ZEUKATEN INTERESA EZ ZEN KEZKA BITXIA GARAIKO MUNDU INTELEKTUALEAN. IZAN ERE, EUROPAKO HERRIALDE GARATU GUZTIETAN BULTZATZEN ARI ZIREN GIZARTE-ERREFORMA PROIEKTUAK XIX. MENDEAN. HORRELA, EUSKARAREN INGURUKO PROIEKTUAK ERE ARO HORRETAKO IKUSMOLDE INTELEKTUALEAN SUSTRAITURIKO SINESTE ETA USTEETAN FUNTSATURIK ZEUDEN
- GARAI HORRETAN GIZARTE ZIENTZIEK GARAPENAK LEGITIMATU EGIN ZUEN GIZARTEA BERA AZTERGAI HARTZEA ETA, MAILA POLITIKOAN, HURA GIZA INTERBENTZIORAKO PREST ZEGOEN ARTEFAKTU MODURA HAUTEMATEA. ORIENTAZIO ZIENTIFIKO ETA SOZIOLOGIKO HORREK EZAUGARRITU DU EUSKAL HIZKUNTZA-MUGIMENDUA: HASIERAN GUTXIENGO INTELEKTUAL BATEK LANDUTAKO IKUSMOLDEAK GERO GIZARTEKO SEKTORE ZABALETAN SUSTRAITU DIRA: ADIBIDEZ HIZKUNTZA PLANGINTZAREN PREMIA, ALEGIA, HIZKUNTZA PRAKTIKAK ZUZENDU ETA ERREGULATU BEHARRA GIZARTE HARREMANETAN, EZAGUTZA LEGITIMOEN LAGUNTZAZ



# EUSKO PIZKUNDEA

## MUGIMENDUAREN GABEZIAK

- 1) MUGIMENDUAREN PROPOSAMEN ASKO EZ ZEN PRAKTIKAN JARRI. EZ ZEN AUKERA SOZIOPOLITIKO EGOKIRIK SORTU HORRETARAKO
- 2) KULTURGILEEK BERAIEK EZ ZUTEN LORTU BEHAR BESTEKO ADOSTASUNIK FUNTSEZKO GAIETAN (EUSKARAREN MODERNIZAZIOA, JARRERA GARBIZALEAK, ...). EUSKARAREN DEFENTSA ERDARAZ EGIN ZEN NAGUSIKI
- 3) MUGIMENDU KULTURALAREKIN BATERA GARATU ZEN HASTAPENETAKO EUSKAL NAZIONALISMOAK BAZTERREAN UTZI ZITUEN PLANTEAMENDU KULTURALISTAK. NAZIONALISMO ARANISTA HEGEMONIKOAK OSAGAI POLITIKOAK LEHENETSI ZITUEN BERE PROIEKTUAN OSAGAI KULTURALEN GAINETIK



# 1960/70EKO KULTURA SUSPERRALDIA

- KULTURA ALDAKETAK INOIZ EZ DIRA MODU ISOLATUAN GERTATZEN. NORABIDEBAKARREKO DETERMINISMOAK ALDE BATERA UTZITA, 1960/70EKO HAMARKADETAN EUSKAL GIZARTEAK BIZI IZAN ZITUEN EGITURAZKO ALDAKETA SOZIOEKONOMIKOekin batera, KULTURA ESPARRUA ERE GOITIK BEHERA ASTINDUA IZAN ZEN. IZAN ERE, FRANKISMOAREN INDUSTRIALIZAZIO ETA MODERNIZAZIO FASE BERRIAK, HEGO EUSKAL HERRIAN URBANIZAZIOA, IMMIGRAZIOA ETA HAZKUNDE DEMOGRAFIKOA ERAGIN ZITUEN ETA, HORREKIN BATERA, BESTELAKO BALIOAK HEDATUZ JOAN ZIREN GIZARTEAN: SEKULARIZAZIOA, KOSMOIKUSMOLDE BERRIAK, ETA ABAR.



# 1960/70EKO KULTURA SUSPERRALDIA

## EZAUGARRIAK

- 1) **ERREFERENTZI MARKO POLITIKOA:** KULTURA SUSPERRALDI HORI ETA EUSKAL NAZIOAREN IKUSMOLDE BERRIA ZEKARREN DEFINIZIOA UZTARTUTA AGERTU ZIREN. EUSKARA EUSKAL NORTASUN KOLEKTIBOAREN (ETA NAZIOAREN) OSAGAI BILAKATU IZANAK, ONDORIO NABARMENAK IZAN ZITUEN EUSKAL HIZKUNTZAREN ETA KULTURAREN BERRESKURAPEN ETA MODERNIZAZIO LANETAN. AREAGO, ESANAHI BERRIA EMAN ZIEN EKINTZA HORIEI, ESANAI POLITIKOA BERE ZENTZURIK ZABALENEAN



# 1960/70EKO KULTURA SUSPERRALDIA

2) INTERPRETAZIO-MARKO HORREN HEDATZE PROZESUA MUGIMENDU ZABAL BATEN ERAKETAREKIN BATERA ETORRI ZEN. KULTURA ESPARRUAREN ERAIKUNTZA PREMIEI ERANTZUTEKO, PROTOKULTURGILEEN GIDARITZAPEAN MUGIMENDUAK **ERAKUNDETZE PROZESU BATI** EMAN ZION HASIERA, HAU DA, KULTURA **INSTITUZIOAK** SORTZEARI EKIN ZION: EUSKAL ESKOLAK, EUSKARA MODERNIZATZEKO ELKARTEAK, HELDUAK EUSKARAZ ALFABETATZEKO ETA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEAK, ARGITALETXEAK, DISKETXEAK, ELKARTE ZIENTIFIKOAK ...



# 1960/70EKO KULTURA SUSPERRALDIA

EGINKIZUN KULTURALAK ZABALDU ETA BEREIZI EGIN ZIREN  
NEURRIAN, SORTUTAKO INSTITUZIOAK GERO ETA UGARIAGOAK  
ETA ESPEZIALIZATUAGOAK IZAN ZIREN

(ERAKUNDE BAKOITZAREN SORRERAK KULTURA AZPIESPARRU  
BATEN ERAIKUNTZA ZEKARREN: EUSKARA MODERNOAREN  
BIRSORKUNTZA ETA TRANSMISIORAKO BEHARREZKOA ZEN  
IKASTOLAREN SORRERAK, ADIBIDEZ, HIZKUNTZA BATERATU ETA  
ERABERRITUA ESKATZEN ZUEN, IRAKASLE PRESTATUAK,  
EUSKARAZKO LIBURUAK, PEDAGOGIA EGOKIA. BERAZ, BALIABIDE  
HORIEN ESKARIA KULTURA ESPARRUAREN ATAL ASKOREN  
GARAPENERAKO MOTORE BIHURTU ZEN. HORRELA SORTU ZIREN  
JARDUERA ESPEZIALIZATUAK)



# 1960/70EKO KULTURA SUSPERRALDIA

- 3) EUSKAL KULTURA ESPARRUAREN ERAIKUNTZAK, INSTITUZIOEN ERAKETA EZ EZIK **KULTURGILE-ROL BERRIEN ERAIKUNTZA** ERE HARTU ZUEN BARNEAN. HAIN ZUZEN ERE, EUSKALGINTZAREN GARAPENAK BERAK SORTU ZUEN AGERTOKI HISTORIKO EGOKIA ORDURA ARTE EUSKAL KULTURGINTZAN EZEZAGUNAK ZIREN KULTURGILE ROLAK DEFINITZEKO ETA ERAIKITZEKO.

HORRELA, 1960KO HAMARKADAKO KULTURA PIZKUNDETIK AURRERA, MUGIMENDUA INDART AHALA, KULTURGILE ESPEZIALIZATUAK SORTU ZIREN ARIAN-ARIAN: IRAKASLEAK, IDAZLEAK, MUSIKARIAK ... MODU HORRETAN ERATU ZEN EUSKAL INTELEKTUALERIAREN HOZIA



# 1960/70ETAKO KULTURA SUSPERRALDIA

4) KULTURA ESPARRUAREN GIZA AZPIEGITURA ETA AZPIEGITURA INSTITUZIONALA EZARTZEAZ GAIN, EUSKALGINTZAREN MUGIMENDUAK **GUNE KOGNITIBO BAT** OSATZEA IZAN ZUEN HELBURU BERE HASTAPENETATIK

HAREN BARNEAN, ERA ASKOTAKO GIZAKI, GIZA TALDE ETA ERAKUNDEEK **ESPARRU KONTZEPTUAL ETA INTELEKTUAL BERIAK ERAIKI ZITUZTEN**, INDARREAN ZEUDEN DEFINIZIOEN ORDEZKO INTERPRETAZIOAK SORTZEKO ASMOZ.



# 1960/70ETAKO KULTURA SUSPERRALDIA

- XIX. MENDE AMAIERAKO PIZKUNDEAN LEHENIK ETA, BEREZIKI 1960EKO URTEETAN GERO, EUSKALGINTZAK **EZAGUTZA CORPUS BAT** OSATU ETA METATU ZUEN BERE BILAKABIDEAN. MUGIMENDUAREN HELBURUEN ARTEAN HIZKUNTZAREN BERESKURAPENAK ETA MODERNIZAZIOAK JASO ZUTEN ARRETA KONTUAN HARTUTA, BEREZIKO GARRANTZIA HARTU ZUTEN **HIZKUNTZALARITZA ETA LITERATURAREN GARAPENAK** AIPATU CORPUSEAN

HORREZ GAIN, GARAIKO MUGIMENDUAK BERE LEHENTASUNEN ARTEAN JARRI ZITUEN **ESKOLEN SORRERA** (ETA HARTAKO PREMIAZKOAK ZIREN BALIABIDE KOGNITIBO GUZTIAK) ETA **AZPIESPARRU ZIENTIFIKO ETA UNIBERTSITARIOEN** ERAKETA



# 1960/70ETAKO KULTURA SUSPERRALDIA

## ONDORIOAK

MUGIMENDUAK SORTURIKO BALIABIDE KOGNITIBOEK BI  
MOTATAKO ONDORIOAK IZAN ZITUZTEN

- 1) BATETIK, **ONDORIO KULTURALAK**, ADIERA HERTSIAN  
HARTUTA. ESAN NAHI BAITA, METAKETA KOGNITIBOAK  
EUSKARAREN BATASUNA ETA MODERNIZAZIOA  
AHALBIDETU ZITUEN ETA AZPIGARATURIK ZEGOEN  
EUSKARAZKO KULTURA ESPARRUAREN ERAKETARI  
HASIERA EMATEKO OINARRIAK JARRI ZITUEN



# 1960/70EKO KULTURA SUSPERRALDIA

2) BESTETIK, BAINA, **ONDORIO POLITIKO NABARMENAK** EKARRI ZITUEN. EUSKARA EZ ZELA BASERRITAR EZ-JAKINEN HIZKUNTZA ERAKUSTEAN, EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA GIZARTE MODERNOAK JARRITAKO BALDINTZETARA EGOKITZEKO GAI ZIRELA FROGATZEAN, EUSKALGINTZAREN ERAGILEEK AZPIKOZ GORA JARRI ZITUZTEN DISKURTSO HEGEMONIKOAREN ARRAZOIBIDEAK.

EUSKALGINTZAK BURUTURIKO KULTURA HORNIKETAK ETA METAKETA KOGNITIBOAK AGERI-AGERIAN UTZI ZUTEN HISTORIAN ZEHAR EUSKAL KULTURA ETA HIZKUNTZAREN GAIN EZARRITAKO BIOLENTZIA SINBOLIKOA. HALA, EUSKALGINTZAREN JARDUERA KULTURALAREN ZEHARKAKO ONDORIOA GUZTIZ POLITIKOA IZAN ZEN



# 1960/70EKO KULTURA SUSPERRALDIA

MUGIMENDUAREN ERRONKA EUSKAL HIZTUN KOMUNITATEAK (BAITA ERDAL KOMUNITATEAK ERE) EUSKARAREKIN ZEUKAN HARREMANA ERALDATZEA ZEN. HARTARAKO, HIZKUNTZAREN ETA HIZTUNEN ARTEKO BITARTEKARITZA EGITEN DUTEN BESTELAKO IRUDIKAPENAK ZABALDU ZITUEN, HIZKUNTZARI BURUZKO DEFINIZIO BERRIAK LANDUZ. MODU HORRETAN, HIZKUNTZA-KONTZIENTZIA BERRIAREN HZIA EREIN ZEN

ALDE BATETIK, EUSKARARI MENDEETAKO GUTXIESPEN SOZIALAREN IKURRA KENDU NAHI ZION KONTZIENTZIA ZEN ETA, BESTETIK, HIZKUNTZAREN ERABILERARI ETA HIZKUNTZAREN IKASKETARI ESANAHI POLITIKO-KULTURAL BERRIA EMAN ZIEN KONTZIENTZIA

GARAICO EUSKAL GAZTE KULTURADUNEK (GEROKO EUSKAL PROTOKULTURGILEEK) SUSTATURIKO KONTZIENTZIA BERRIA, HITZ BATEAN, EUSKARAREN ORDEZKAPENA GELDITZERA SUSTATURIK ZEGOEN ETA, HARTARA, HIZTUNEN ETA HIZTUNGAIEN PRAKTIKA LINGUISTIKOA ALDATZERA EUSKARAREN ALDE



# 1960/70EKO KULTURA SUSPERRALDIA

3) ONDORIO KULTURALAK ETA POLITIKOAK NAHASTEN DIREN MAILA BATEAN, MUGIMENDUAK **HIZKUNTZA POLITIKAREN PREMIAREN IDEIA** GIZARTERATU ZUEN. ALDAKETA LEGALAK ETA ADMINISTRATIBOAK EZINEZKOAK ZIREN GARAIAN. KULTURA MUGIMENDUAK ETA MUGIMENDUKO KULTURGILEEK HARTU ZITUZTEN BEREN GAIN HIZKUNTZA ARAUTZEKO ETA PLANIFIKATZEKO ARDURAK. POLITIKOKI ERATURIKO HIZKUNTZA KOMUNITATEETAN, ALDIZ, EGINKIZUN HORIEK ESTATUEK BURUTU IZAN DITUZTE MODERNITATEAN



# 1960/70 EKO KULTURA SUSPERRALDIA

HORRENBESTEZ, MUGIMENDUAK **HIZKUNTZA GUTXITUAREN TRANSMISIO ETA ERABILERA PROZESUETAN ERAGITEKO ESTRATEGIAK GARATU** ZITUEN; BESTEAK BESTE, LEHEN MAILAKO HEZKUNTZA ETA HIZKUNTZA ESTANDARIZAZIOA BULTZATU ZITUEN. JAKINA, PROEIKTU ASKO EZIN IZAN ZIREN HEZURMAMITU.

BAINA, MUGIMENDUAREN ETA HAREN KULTURGILEEN JARDUNAREN ONDORIOZ, **HIZKUNTZAREN GAINEKO PLANIFIKAZIOA ETA INTERBENTZIOAREN IDEIAK**, BAITA MUGIMENDUAK ERABILITAKO BALIABIDE KOGNITIBOEI LOTUTAKOAK ERE, EUSKAL **GIZARTEKIDE ARRUNTEN "SEN ONEKO EZAGUTZAN"** **BARNERATURIK GERATU ZIREN** LUZE GABE. ARE GEHIAGO, IDEIA HORIEK GIZARTEKIDEOK HIZKUNTZAREKIN IZANDAKO HARREMANA BALDINTZATU ZUTEN AURRERANTZEAN



# 1960/70EKO KULTURA SUSPERRALDIA

MUGIMENDUAREN IZAERA GATAZKATSUA

EUSKALGINTZAREN GUNE KONTZEPTUALAREN OSAKETA PROZESUA ETA ONDORENGO BILAKAERA TENTSIOZ ETA GATAZKEZ JOSITA EGON ZIREN HASIERATIK. BADA, EUSKALGINTZAREN ERAGILE ZIRENEN PROPOSAMENAK (KULTURGILEENAK BARNE) EZ ZIREN BETI BAT ETORRI EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN MODERNIZAZIOARI ZEGOKIONEZ, ALDIZ, ERA ASKOTAKO DEFINIZIO ETA PROPOSAMENAK ARITU ZIREN LEHIAN ESPARRUA ERATZERAKOAN



# 1960/70EKO KULTURA SUSPERRALDIA

ASKO IZAN ZIREN GATAZKA HORIEN ADIERAZPENAK,  
GATAZKO KOGNITIBO MODURA AGERTU ARREN  
OINARRI POLITIKOA ERE BAZEUKATENAK

- 1) EUSKARAREN BATASUN PROZESUA, ESATE BATERAKO,  
GORABEHERA FRANKOREN ONDOREN BURUTU ZEN
- 2) LITERATURGINTZA BERRIAREN HASTAPENAK ERE  
POLEMIKAZ KUTSATURIK AGERTU ZIREN, LITERATURA,  
HIZKUNTZA ETA KULTURARI BURUZKO IKUSPEGI  
DESBERDINTASUNAK, BELAUNALDIEN ARTEKO  
DESBERDINTASUN ETA EZTABAIDA POLITIKOekin  
BATERA AZALERATU BAITZIREN



# EZTABAIDARAKO GAI (POSIBLE) BATZUK

1. EUSKALGINTZAREN IKUSPEGI INTELEKTUALISTEGIA ESKAINI DA?
  - EGOKIAGOAK IZAN DAITEZKE BESTE IKUSPEGI BATZUK?
  - IDEIEN USTEZKO INDARRA
  - FAKTORE MAKROESTRUKTURALEN BALDINTZAPENA ALDAKETA KULTURALETAN
2. KULTURGINTZAREN ETA POLITIKAGINTZAREN ARTEKO HARREMANAK
  - KULTURGINTZAREN ONDORIO POLITIKOAK
  - KULTURGINTZAREN ETA EUSKALGINTZAREN AUTONOMIA
3. BESTELAKO ONDARE MOTARIK JASO DUTE EUSKALGINTZAK ETA KULTURGINTZAK AURREKO GARAI HORIETATIK, ZUEN USTEZ?